



Hiru zinegotzi postu lizartarren esku utziko ditu Egibarrek

UDALA ▶ «Ez da normala Udala kanpotarren esku egotea», esan du alkateak

BESTEAK ▶ Erabaki hau beste herri batzuetara zabaldu nahi du

EAJ ▶ Imaz EAJko lehendakaria aurka agertu da; neurriak hartuko ditu ▶ 6



‘Martxaundi IV’: gazteak eta musika

TOLOSA ▶ Atzo aurkeztu zuten *Martxaundi IV* musika bilduma. Galtzaundi Euskara Taldearen ekimenez, Tolosako Udalaren babesaz eta Bonberenearen laguntzaz, eskualdeko eta herriko hamar talde eta bakarlari gazteren estilo guztietako musika jasotzen duen bilduma. Euskara, musika eta gaztetasuna dira bildumaren osagaiak. Grabaketak maiatza eta ekaina bitartean

egin ziren Bonbereneako estudioetan, Txap soinu teknikariarekin. Talde hauek sanjoanetan eman zuten aurkezpen kontzertua. Udazkenean zuzeneko emanaldi ugari eta azaroan Martxaundi Festa iragarri dituzte. Diskoa Galtzaundin eros daiteke hamar eurotan. Argazkian, diskoaren sustatzaileak eta kartela, atzo Kultur Etxean. LEIRE MONTES ▶ 2

LEITZA ▶

38 ikasle ari dira euskara ikasten barnetegian

Hamabost eguneko ikastaroa dute, hiru taldetan banatuta ▶ 7

bed's
beherapenak

Esnai amets egiteko prezioak

koltxoietan
%30-eko deskontua

Eta gainera deskontuak almohada, etxeko arropa, koltxoi babesle, oheko puf, sofa - ohe eta abarretan

NON DAGO NIRE BED'S DENDA GERTUENA?

ETOLA
ALIZARIAK

943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
TOLOSA

Dendak
bed's
Asteden hartu nahi al duzu?

ASTEASU ▶

Kros igoerarekin hasiko dira etzi Santamañako jaiak

Laugarren edizioa izango da aurten; mus txapelketa izango da

Txupinazoa hurrengo asteburuan botako dute ermitaren inguruan ▶ 4

EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE

ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko Ileapandegiko III. Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- Lan Burtsa, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko txandak

San Francisco 39, behea
TOLOSA
Tel. 943 654361

GUREKIN, ZUZENEAN LANERA

www.centrosbeta.com

MUSIKA ▶

'Martxaundi IV': gaztetasuna, euskara eta musika oinarri

'Martxaundi IV' musika bilduma aurkeztu du Galtzaundi Euskara Taldeak



Ekzer-eskuin: Nerea Cereceda, Joni Ubeda eta Imanol Urizar aurkezpenean, atzo, Kultur Etxean. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Martxaundi IV musika bilduma kalean da. Galtzaundi Euskara Taldeak sustatutako proiektuak Tolosako Udaleko Gazteria sailaren babesarekin eta Bonberenea ekintzak zigituaren laguntza jaso du. Hain zuzen ere, Galtzaundiko Joni Ubedak, Nerea Cereceda Gazteria teknikariak eta Imanol Urizar Bonberenea eta gazteriaren ordezkariek eman zuten, atzo, bildumaren xehetasunen berri.

Ubedaren esanetan, «euskara, musika eta gaztetasuna dira *Martxaundi* bildumaren osagaiak». «Azkar eta arin» bideratu dute proiektua: aurtengo maiatza eta ekaina bitartean grabatu zuten Bonbereneako

estudioetan, Txap soinu teknikariarekin. «Grabaketa oso baldintza onetan egin dugu. Bonbereneako estudioa primeran dago, eta gainera bertakoen eta teknikarien laguntza handia jaso dugu».

Tolosako eta eskualdeko hamar taldek eta bakarlarik hartu dute parte *Martxaundi IV* diskoan: Jone, Mairén, Inoiz, Denis, Mulambo, Joselito Albahicin, Prozak, Markel Telleria, Ezein eta Hurakan txabakan. Estilo guztietako musika landu dute, gainera.

«Disko hau erosi egin behar da», esan zuen barre artean baina tinko Ubedak. «Musikari berri hauek merezi dute, denon bultzada ezinbestekoa da». 5.400 euro inguru izan da

proiektuaren gastu orokorra; jasotako laguntza gain, salmenten bidez finantziatu nahi dute hein handi batean ekimena.

Oraingoz, Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6. Tolosa. 943 65 50 04) eros daitezke *Martxaundi IV*, 10 eurotan. Aurreantzean Tolosako beste hainbat puntutan jarriko dute salgai, eta eskualdera ere zabalduta nahi dute.

Udazkenean, jarraipena

Atzoko aurkezpena *Martxaundi IV* proiektuaren bigarren pausoa da. San Joan jailetan eman zuten lehendabiziko urratsa ekimenak: «Disko honen aurkezpena egin genuen sanjoanetan. Bilduman parte hartu duten taldeek zuzeneko emanaldiak eskaini zituzten, herriaren aurrean», azaldu zuen Ubedak.

Eta bigarren fasearen ondoren iritsiko da hirugarrena,

FITXA ▶

Izenburua. *Martxaundi IV. Taldeak.*

- ▶ Jone: *Estutasuna.*
- ▶ Mairén: *Hitzen kartzelan.*
- ▶ Inoiz: *Egin dezagun bat ama lurrarekin.*
- ▶ Denis: *Cowboy jeans.*
- ▶ Mulambo.
- ▶ Joselito Albahicin: *Txoriak txori.*
- ▶ Prozak: *Hondar ale bat naiz ni.*
- ▶ Markel Telleria: *Where is mum?*
- ▶ Ezein: *Hitz zertzeladak.*
- ▶ Huracan txabakan: *Zeinek.*

Sustatzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.

Babeslea. Tolosako Udaleko Gazteria Saila.

Ekoizlea. Bonberenea ekintzak.

Soinu teknikaria. Txap.

Azalaren eta liburuxkaren diseinua. Zigor Agirrezabala (Onik).

Salneurria. 10 euro.

uda ostean. Izan ere, udazkenean zuzeneko emanaldi ugari iragarri dituzte Galtzaundikoek. Diskoan parte hartu duten taldeek kontzertuak eskainiko dituzte eskualdean; eta Bonbereneakoen bitartez, Euskal Herriko hainbat txokotan ere ariko dira.

Azaroaren amaieran amaituko da zikloa. *Martxaundi Festa* egingo dute Bonberenean, eta proiektuan parte hartu duten taldeek emanaldiak eskainiko dituzte bertan.

Gazteria sailari, Bonberenari eta «musikariei, gogo bizia erakutsi eta lan handia egin dutelako» emandako laguntza eskertu zien Galtzaundiren izenean Ubedak. Cereceda Gazte teknikaria, bestalde, «aurrera begira horrelako ekimenak laguntzen jarraitzeko prest» agertu zen. Urizarrek, azkenik, gazteen eta Bonberenearen izenean, eskerrak eman zizkion Galtzaundiri, «horrelako apustua egiteagatik».

GUTUN@K ▶



Tolosako Zentro Gerontologikoaz

Aralarrek eta Ezker Batuak Politika Sozialerako Foru Diputatuaren agerraldia eskatu dute Batzar Nagusien aurrean Tolosako Gerontologikoaren egoeraren berri eman dezan. Hain zuzen ere, Aralar eta Ezker Batua Talde Batzarkideek batera eskatu dute Politika Sozialerako Foru Diputatua den Esther Larrañagaren agerraldia Tolosako Gerontologikoak pairatzen ari den egoera gataztsuaren berri jendaurrean eman dezan.

Sinatzen dugun Batzarkide Taldeak gure kezka adierazi nahi dugu zentro horren etorkizunaz, Tolosaldeko biztanleekin bat eginez. Dirudenez, zentroaren etorkizunari buruzko azterketa ari da burutzen eta bitarte horretan pertsona gehiagoren sarrearak bertan behera geratu dira; halaber, arropa garbitzeko, jantokiko eta zainketa zerbitzuak ere murriztu egin dira.

Gainera, azpikontratatura dauden enpresei prezio baxuagoak ezarri zaizkie eta horrek guztiak zentroko langileen prekaritatea eta lan baldintzen okerragotzea ekarriko du ezinbestez. Eta horrek, noski, eragin negatiboa izango du gure nagusiek eta beren familiek jasotzen duten zerbitzuaren kalitatean.

Aralarrek eta Ezker Batuak, batera aurkeztu dugun ekimen honen bitartez Tolosako Gerontologikoaren langile zein erabiltzaileei gure babes eta elkartasun erabatekoa adierazi nahi diegu. Halaber, Gipuzkoako Batzar Nagusietan hainbestetan aipatu dugun bezala, sektorean diharduten pertsonentzako lan baldintza duinen aldeko gure konpromiso tinkoa berretsi nahi dugu. Izan ere, egoiztetako langileek lan sozial ezin ordainduko egiten baitute adineko pertsonak zainduz eta ez da onargarria instituzioen aldetik lan hori horren gutxi baloratua izatea.

ARALAR BATZARKIDE TALDEA-
EZKER BATUA BATZARKIDE
TALDEA • GIPUZKOAKO
BATZAR NAGUSIAK



LASKORAIN IKASTOLAK zeregin hauetarako bi lanpostu bete behar ditu:

- LHrako IRAKASLEA**
- Magisteritza titulua
 - Pedagogia Terapeutiko titulua
 - EGA edo baliokidea
 - Urtebeteko kontratua

- DBHrako IRAKASLEA**
- Matematikan Lizentziatua
 - EGA edo baliokidea
 - CAP
 - Lau hilabeteko ordezkapaketa

Interesdunek bidal dezatela e-mail bidez curriculuma uztailearen 12a baino lehen helbide honetara: tolosa@ikastola.net

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

ESTETIKA ▶

Hiru minututan beltz

AEBetik etorri berri den asmakuntza honek, azukre kainabera bidez belzten du azala inongo arriskurik gabe



Azukre kainabera hautsezko tratamendua benetan atsegina dela diote bezereok. I.Asensio

IÑIGO ASENSIO

Azukre kainabera bidezko tratamendu berriztatzeilea heldu da Tolosara, eta oraingoz onespren bikaina izaten ari da. Metodo honek azukre kainabera hautsarekin azala margotzean datza eta minutu gutxitan aerografo baten bidez gorputza belzten du. Nahiaren arabera geruza gehiago ematen zaizkio azalari, beti ere, norberaren azal kolorearen araberrako emaitza lortuz. Sistema honek duen ezaugarri onena kontraindikaziorik ez izatea da, UVA izpiek dakartzaten arazo guztiak ekiditen baitira. Azalari kolorea

ematen zaio, baina ez dira xurlameak (poroak) estaltzen eta ez du osagai kimikorik. Blanca Gorrotxategi, Gorrotxagi Dietetikako arduradunaren hitzetan, «tratamendu hau edozein pertsonak har dezake, adina edota barizeak oztopo izan gabe». Aurreneko saioaren eraginak hiruzpalau egun irauten ditu, eta handik aurrera, azalaren egokitzea dela eta, 10-15 egun bitarte iraun ditzake. Beltzaran jartzeko modu hau ez da urarekin ezabatzen, nahiz eta, produktua azalean finka dadin, aurreneko sei orduetan ez dutatzea gomendatzen duten. Tresna honek ekaitzen 22tik darama Tolosan.

Arrakasta Norvegian

Norvegia bezalako lurralde hotz batean izaten ari da arrakasta handia azukre kainabera sistema. Bertako biztanleek ez dute eguzkia hartzeko ohitura handiegirik, horrexegatik agian, aukera falta horrexegatik, asmakuntza honek izan duen onarpen izugarria.

Tratamenduaren prezioak honako hauek dira: 12 euro aurpegi, beso eta bularreko tratamenduak. 12 euro hanke-tako tratamenduak eta 25 euro gorputz osokoak. Tratamenduaren ostean, betiko moduan erabili behar da eguzkiaz babesteko krema.

IGERIKETA ▶

TCF igeri taldea bikain Gipuzkoako Txapelketan

Eneka Muñagorri nesketan eta Jokin Otaegik mutiletan, Gipuzkoako txapelkun



Tolosa CF igeriketa taldeko hamazapi kideak igerilekuan. HITZA

I.ASENSIO

Eneka Muñagorri eta Jokin Otaegik erabateko igerilari saileko Gipuzkoako Txapelketa eskuratu dute. Hauekin batera, Iñaki Carrerak brontzeko domina lortu du.

Tolosa CF igeriketa eskola-ko alebinek lortutakoa izugarriko marka da; bi igerilarik garaipena lortu dute eta hiru-garren bat podiumean izan da, beste edozein taldek lortutakoa hobetuz. Igerilari hauek dohain bikainak dituztela erakutsi dute, lehiaketako presioa arazorik gabe gainditu dutelako.

Bestalde, Iosu Carreraren 4. postua aipatzekoa da, 100 metro libreko bigarren biraketan emandako zoritxarreko ur zurrutada batek podiumetik kanpo utzi zuelarik.

1992an jaiotako mutilek osatutako taldea ere oso maila onean aritu zen. Ion Igaitea 6., Endika Arandia 12., Nestor Etxart 14., Ion Ander Goya 20. eta Oier Laborde 21. izan dira eta lehen aipatutako Iosu Carrera berak, postu asko hobetu dituzte lehengo urteko txapelketaekin alderatuz.

Tolosa CFko igerilariak, izugarriko markak lortu zituzten. Horrela, Muñagorri bran-zan, Otaegik 50 metro tximeletan, Iñaki Carrerak bizkarraren, Josu Carrerak 100 metro tximeletan eta Igaiteak bran-zan lortutako marka bikainek lorpena berresten dute.

Bestalde, aurtan estreinatzen ziren Iñaki Muñoa, Ainhoa Onsalo, Adriana G. Rozas eta Iñigo Pradak, egindako probetan erakutsitako maila, benetan aipagarria da.

Euskalkiak

Koldo Zuazo hizkuntzalariak euskalkiak sailkatzeko egin duen mapa berria.

Uztailaren 11n, BERRIAREKIN, DOAN

Euskaldunok behar dugun **berria**

VILLABONA ▶ INGURUMENA

Erraustegiaren aurkako
plataforma sortuko duteAsteartean izango da taldea sortzeko bilera,
19:30ean euskaltegian bilduko dira

G. AZKUE

Villabonako Amasamendi da erraustegia jartzeko proposatutako lekuetako bat eta Diputazioak uztailearen 19an erabakiko du hura jartzeko behin betiko lekua, beste bederatzirentzen artean.

Hori jakinda, hainbat billabonatar lanean hasi dira jada ekintza hori ekiditeko, eta, erraustegiaren aurkako plataforma sortu nahi dute. Erraustegaren aurkako hiri-plataformaren koordinakundeak adierazi duenez, «koordinakunde honek proiektua erre-

fusatu egin du instalazio horrek gizakion osasunarentzat eta ingurumenarentzat arazo larriak dakartzalako. Ez dugu ulertzen zer interes izango dituzten agintari politikoei esku artean».

Hori ardatz hartuta abiatu dira billabonatarrek ere. Erraustegiaren aurkako plataforma eratzeko, asteartean bilera baterako deia zabaldu dute plataformaren bultzatzaileek. Elkarteratzea 19:30ean izango da Villabonako euskaltegian.

ADUNA ▶ KIROLA

I. Trans-Ernio Esku Pilota
Txapelketa abian daLarunbatean eta igandean izango dira
lehen partidak Adunako pilotalekuan

G. AZKUE

Adunako I. Trans-Ernio Esku Pilota Txapelketa antolatuko dute, eta, asteburu honetan izango dira lehen partidak herriko pilotalekuan.

Lau kategorietako partaideak izango dira, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak. Aduna, Alkiza, Amezketa, Andoain, Asteasu, Berastegi, Bidegoian, Ibarra, Lazkao eta Urnietako partaideak izango dira partidetan.

Larunbatetan 17:00etan izango dira partidak eta igandean 11:00etan.

Biharko partidei dagokionez, kadeteen mailan, Zabalak eta Sagasetak (Andoain) Iratzusta eta Mujikaren (Berastegi) aurka egingo dute. Bigarren partidetan, Garmendiak eta Garmendiak (Lazkao) Alberro eta Sarasolaren (Asteasu) aurka jokatu dute. Eta benjaminetan, Artola eta Ota-

mendi (Amezketak) Zelaia eta Labakarekin (Bidegoian) ariko dira norgehiagokan. Hauek izango dira larunbateko partidak.

Igandeko partidetan, berriz, benjaminetan, Mujika eta Ezeiza (Ibarra) Ansa eta Garinen (Urnietak) aurka ariko dira. Alebinetan bi partida egongo dira igandean, Otaegi eta Galarraga (Bidegoian) Etxeberria eta Kalegainen (Urnietak) aurka lehiatuko dira; bigarren partidetan, Ariztimuño eta Gurrutxaga (Ibarra) Goitia eta Gallurralderekin (Amezketak) ariko dira.

Eta azkenik, infantilen mailan, Pagola eta Fernandez (Urnietak) Gaztañaga eta Aizpuruarekin (Andoain) ariko dira. Bigarren txandan, Mattin eta Malbadi (Ibarra) Ormaetxea eta Azkuerekin (Alkiza) lehiatuko dira.

Finala abuztuaren 7an izango da.

ASTEASU ▶ SANTAMAÑAKO JAIK



Aurtien Santamañako igoeraren laugarren saioa izango da; argazkian, iazko saioa. G. AZKUE

Santamañako jaiak
kros igoerarekin
hasiko dira igandeanAurtengoa laugarren saioa izango da; mus txapelketa ere
jokatuko dute; txupinazoa hurrengo astean izango da

GARAZI AZKUE

Laster hasiko dira Asteasuko Santamañako jaiak, hurrengo asteburuan izango da txupinazoa. Hala ere, txupinazoa aurretik ere bada ekintzarik ermitaren inguruan.

Santa Marinaren omenez prestatu dituzte jaiak asteasuarekin. Santamaña elkarteak, Goibailarako bizilagunak eta Asteasuko Udaleko Festa Bazardea arduratu dira egitaraua prestatzeaz, uztailearen 11, 16a, 17a eta 18rako.

Urtero bezala, Santamañako igoera entzutsua izango da

igandean. IV. Kros Igoera goizeko 10:30ean abiatuko da Asteasutik, eta herrian zehar buelta batzuk eman ostean, Santamaña ermitaraino iritsi beharko dute parte hartzaileek; guztira zazpi kilometroko bidea osatu arte.

Izena emateko, Asteasuko plazara gerturatu beharko dute parte hartzaileak igandean, lasterketa hasi baino ordu bete inguru lehenago.

Pasa den urtean, Josu Arregi azpeitiarrak 28 minutu eta 20 segundoko denboran burutu zuen bidea, bera izan zen lehenena. Nesken sailean, berriz, Ne-

rea Amilibia izan zen lehenengo Santamañara iristen, 37 minutu eta 14 segundo behar izan zituen horretarako.

Igande goizean izango da, beraz, korrikalari proba. Baina arratsaldean ez da hutsik geldituko, Santamañako IX. Mus Txapelketa ere antolatu baitute, 16:00etan izango da.

Eta jaiak ostiralean jarraituko du, txupinazoa eta Tranpazuloren jaitsiera egun horretan izango baitira festen hasiera iragartzeko. Hortik aurrera, herri kirolak, afariak, musika eta jai giroa izango dira hiru egunetan zehar Santamañan.

EGITARAUA ▶

UZTAILAK 11

10:30. Santamañako IV. Kros Igoera.
16:00. Santamañako IX. Mus Txapelketa.

UZTAILAK 16

20:00. Festen hasiera: txupinazoarekin eta Tranpazuloren igoerarekin.
21:00. Herri afaria.
23:00. Zabale eta Larrañaga trikitilariak.
Goizaldean. Txokolatada.

UZTAILAK 17

11:00. Meza.
Ondoren. Hamaiketakoa.
13:00. Herri kirolak bailarakoen artean.
Ondoren. Laja eta Izer trikitilariak eta Mañukorta eta Zeberio bertsolariek alaituko dute giroa.
17:00. Haur jolasak.
18:30. IV. Nazioarteko Toka Txapelketa.
23:00. Laja eta Izer trikitilariak goizaldera arte.
Goizaldean. Txokolatada.

UZTAILAK 18

10:00. Andazarrateko XX. Igoera. Federatu gabeko txirindularientzat.
11:15. Meza nagusia.
Ondoren. Herri kirolak eta Laja eta taldea trikitilariak eta Peñagarikano eta Telleria bertsolariek.
16:30. Kalejira.
Gauean. Laja eta taldea trikitilariak.
Gauerdian. Tranpazuloren jaitsierarekin amaituko dira aurtengo jaiak.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar Urrope plaza • Leaburu Tel.: 943 67 15 48

AMEZKETA ▶

1959. urtean jaiotakoei bazkarirako deia

1959an jaiotako amezketa- rrei eta ugartearrei uztailaren 17an, larunbata, egingo den bazkarirako deia luzatu nahi zaie; bazkarira joan nahi dutenek honako telefono zenbakira deitu dezakete: 630 71 85 51 (Joxe Mari). Izena uztailaren 16a baino lehenago eman beharko dute interesatuek.

ALEGIA ▶

Pisu eta luzera handiko amuarrainak

Txiki-txikitatik arrantzale fina izan da Jokin Zabala gazte alegiarra. Argazkian, arrantzatutako bi amuarrain eskuartean dituela ikus daiteke; bata, ia bost kilo (4,250 gramo) pisatzen ditu eta 73 zentimetroko luzera du. Besteak, 1,350 gramo pisatzen du eta 53 zentimetro neur-tzen ditu.



Jokin Zabala arrantzatutako amuarrainak eskuartean dituela. HITZA

AMEZKETA ▶

Gaztetxoeren bi partida asteburuan

Amezketako Gazte Taldeak antolatutako pilota txapelketa herrikoiko bi partida jokatuko dituzte asteburuan; gaztetxoeren partidak izango dira biak. Gaur, 18:30ean, Mer-txek eta Aiorak Julen eta Xa-biren aurka jokatuko dute; bihar, ordu berean Enekok eta Beñatek eta Jokin eta Da-biden aurka jokatuko dute.

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

2004ko Euskal Kooperantearen Saria jaso du Egigurenek

Gasteizen, Eusko Jaurlaritzan, jaso zuen saria Miren Egigurenek Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik



Miren Egiguren auzoalanean Venezuelako auzoko ^obilagunekin kalea txukuntzen. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Orain dela hogeita hamabi urte, Gobernuak Kanpoko Era-kunde baten bidez Venezuelara joan eta han bizi da geroztik Miren Egiguren bidaniarra behartsuenen ondoan lan egiten. Bertako beste bat bezala, proiektu ugari jarri ditu mar-txan Egigurenek auzokideekin elkarlanean.

Emakume bizia, beti lanera-ko prest dagoen horietakoa da Egiguren: «Hainbeste gauza daude egiteko eta hain motza da bizitza», azaldu zuen, esate-rako, urtarrilean HITZAK egin-dako elkarrizketan.

Venezuelan egindako lana, proiektuak martxan jartzeko izandako indarra... kontutan

hartu ditu, nonbait, Eusko Jaur-laritzan, izan ere aurtengo Eus-kal Kooperante Saria Egigureni egokitu baitzaio.

Atzo, EAeko lehendakaria-ren, Juan Jose Ibarretxeren, es-kutik jaso zuen saria Eusko Jaurlaritzaren egoitzan (Gastei-zen) egindako ekitaldian.

Laguntza eskertzen

Caracaseko Petaren auzoan hezkuntza, okindegi zerbitzua, josteko kooperatiba... dauden egoitza sortzeko dirua eman zuen Eusko Jaurlaritzak. Saria jaso aurretik ere «Proiektu, neurri handi batetan, Eusko Jaurlaritzakemandako diruari esker atera zen aurrera», azpi-marratu nahi izan zuen.

Atzera berriro Venezuelan lanean jarraituko du Egigure-nek izan ere «bertako behar-tsuenekin bere zortea bota-tzea» erabaki baitu.

AMEZKETA ▶ PILOTA

Joxean Tolosa txapelketaren hasiera

Hamar partida jokatuko dira asteburuan; bihar, arratsaldean eta gauean izango dira

O. ESKITXABEL

Pasa den asteburuan zen has-tekoa XXV. Joxean Tolosa pilo-ta txapelketa; azkenean, par-taidetza uste baino altuagoa zela ikusita, eta antolatze-ko denbora gehiagoren behar-rean, asteburu honetara atzera-tu zen.

Gaur eta bihar artean ha-mar pilota partida jokatuko dira Larrunarri pilotalekuan. Kadete, gazte eta nagusien mailako pilotariak eskuz ba-naka eta lau t'erdian jokatuko dute.

Bizkaia, Araba eta Gipuzko-ako pilotariak ariko dira nor-gehiagokan asteburu hone-tan; tartean, eskualdeko pilo-tariak ere izango dira. Martinez lizartzarrak, kadete-etan jokatuko du bihar arrats-aldean; Guerrero amurrioa-raren aurka jokatuko du bihar arratsaldean. Arratsal-deko azkeneneko partidaren eta nagusien mailan, Zabala ano-etarrak jokatuko du, bestalde; Aldazabal loiolarrarekin neurtuko da.

PARTIDAK ▶

GAUR

22:00etatik aurrera. Kadeteak. Sarasola/Jauregi. Gazteak. Aranburu/Azkarate. Nagusiak. Zabaleta/Aranburu II.

BIHAR

16:00etatik aurrera. Kadeteak. Badillo/Garzia. Kadeteak. Gerrero/Martinez. Gazteak. Alberdi/Goikoetxea. Nagusiak. Aldazabal/Zabala II. 22:00etatik aurrera. Kadeteak. Ruiz/Goikoetxea. Gazteak. Aranburu/Unanue. Nagusiak. Arrizabalaga/Agirre.

**ANOETAKO HERRI IKASTOLAK
LANPOSTU BATERAKO
DEIALDIA**

LANPOSTUA:

- 2 urteko gelarako irakasle laguntzailea eta ikasle hauen ardura izan jangelan.
- Urte batez.

ONINARRIZKO PROFILA:

- Baitarakoa izatea
- Euskara (EGA) tituloa
- Irakasle tituloa

KURRIKULUMAK

Anoetako Herri Ikastola, Ergoien 5 • 20270 ANOETA
anoeta@ikastola.net-era bidali uztailaren 15a baino lehen.

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

**MERKATAL
AGENTEA**

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

EAJko hiru zinegotzi postu herritarren esku utziko ditu Egibarrek

EAJren oniritzirik ez duela, prentsaren bidez jakin duela eta «behar diren neurriak» hartuko direla erantzun dio Imazek



Patxi Ezkiaga, Joseba Egibar eta Axurdariokoak hauteskundearen aurretik egindako batzarrean. I. ETXEBESTE

ERREDAKZIOA

Lizartzako alkate eta EAJko GBBko (Gipuzkoako Buru Batzar) lehendakari Joseba Egibarrek Lizartzako Udaleko EAJko hiru zinegotziren karguei uko egin, eta herritarren esku ipiniko dituztela jakinara-

zi zuen atzo. Egibarren hitzetan, «ez da normala alkatetza kanpotarren esku egotea». Hiru zinegotzietako bi, Aitor Olaetxea eta Xabier Iparragirre hain zuzen, Axurdario plataformaren ilegalizatuak hauteskundeetan aurkeztutako zerrendan laugarren eta seigarren tokian

zihozazen. Maribi Beldarrain izango litzateke hirugarren zinegotzi berria. Akordioa «Udalean sartutako diren hiru lagunekin soilik» egin dutela esan du Egibarrek, eta ez Axurdario plataformarekin.

HITZAK bilera hauen berri bazuen eta Axurdariok «positibo-

ki» baloratzen zituela jakin du. Atzo harremanetan jarri zen bere ordezkariekin, baina oraingo ez dutela «adierazpenik egingo» jakinarazi zuten.

Bestalde, Josu Jon Imaz EAJko Euskadiko Buru Batzarreko lehendakariak EAJ erabaki horrekin bat ez datorrela adierazi zuen, «ez irizpideekin, ez ildoarekin eta ez udal mailan darman politikarekin; komunikabideen bidez izan dugu gai horren berri, EBBko hurrengo bileran hitz egin eta behar diren neurriak hartuko dira».

Iazko udal hauteskundeetako emaitzen arabera Axurdario bost zinegotzi zegozkion, eta EAJri bi eta emaitza horiek errespetatzea izan da orain arte Axurdarioaren eskaera. Plataforma ilegalizatuta dagoenez, EAJk zazpi zinegotzi lortu zituen. Ondoren, zazpi horietako hiruk eta ordezeko bik uko egin zioten zinegotzi izateari.

Beste herrietara zabaldu

Era berean, Egibarrek erabaki hori Gipuzkoako beste bost herritara zabaldu nahi dutela berretsi du: Aizarnazabal, Hernialde, Irura, Itsasondo eta Leaburu. Herri horietan ere plataformek EAJk baino botu gehiago jaso zituzten. EAJko zinegotzietatik dimisioa aurkeztu zuten Hernialden, Iruran eta Leaburun, eta jardunean jarraitzen dute lanean aurreko udalbatzarrek. Azken bi kasuetan ezker abertzalekoak dira alkateak eta zinegotziak.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 6532112

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 67 25 36

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Etxebeste J. M. Gernikako

arbolaren 3a. 65 10 40 (Tolosa).

M. Plaza, Elbarren 36 (Leizta).

Telefona: 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Idia. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leiztaldea. 687 41 01 18.

leiztaldea@tolosaldeko-hitza.info

ELDUAIN ▶ OMENALDIA

Arantxa Otamendiri omenaldia egingo diote bihar haren jaiotetxean

Omenaldia 19:00etan hasiko da eta ondoren afaltzeko bilduko dira Urdelar biltokian

D. GIBELALDE

Bihar omenaldia egingo diote herritarrek Arantxa Otamendiri iheslariari haren jaiotetxean. Altsu baserrian, 19:00etatik aurrera. Monolito bat ipiniko dute haren omenez, Sarrera,

txalapartariak, abeslaria eta kitarra jole bat izango dira. Anabel Eguesen eskutitz bat ere irakurriko da. Otamendiren errautsak lurrera bota, eta landare bat ipiniko dute. Ondoren, Urdelar biltokian elkartzeko dira denak afaltzeko.



Arantxa Otamendi. HITZA

Maiatzaren 30ean hil zen Otamendi, Baionako ospitalean. 1987ean egin zuen ihes Otamendik, Felix Sarriegi duela hiru urte zendutako senar alegiarrarekin batera. Baionako beilatokian ere omenaldia egin zioten.

BERASTEGI ▶

Odola emateko aukera gaur Muñagorri eskolan

D. GIBELALDE

Odol emaleek aukera izango dute gaur arratsaldean odola emateko. Berastegiko odol emaleen elkarteko antolatzaleek jendea azaltzea animatu nahi izan dute. 18:30etik aurrera izango da odola emateko aukera ohiko tokian, Muñagorri eskolan, hain zuzen.

iragarki laburrak ▶

LAN ESKAINTZA

Mendiko lanetarako. Mendiko

lanetan aritzeko pertsona bat

behar da. Berastegi, Leizta eta

Larraun bailararako. Bertakoa

bada hobe. Telf: 619 23 24 45.

Etxeko lanak. Alegian

emakume bat behar da etxeko

lanak egiteko. Orduetgia,

10:30etik 14:30era. Telf: 943 65

30 34 (arratsaldeetan deitu).

Taberna. Aste bukaerarako

neska bat behar da barrarako.

Telf: 943 69 19 33.


SALGAI

Logela. Altzariz guztiz hornituta

dagoen 5 urteko logela eder bat

salzen da modu onean oso.

Telefona: 618 25 50 00.



HITZAK zozketatutako *Leidor Zineman* astebukaera honetan 'HARRY POTTER III' filma ikusteko bi sarreren irabazlea: **ARANTXA LIZARRALDE (BELAUNTZA)**

LEITZA ▶ EUSKARA

Euskaraz biziz, ikasi

Barnetegian, inguru euskaldunaz baliatuz, euskaraz biziz, euskara bera ikasten edo hobetzen dihardute



Leitzako barnetegiko ikasleak adi-adi, gaztagintzari buruzko bideo bat ikusten ari zirelarik. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Hogeita hemezortzi ikasle dira eta euskara ikastea ez ezik, hobetzera eta azterketa prestatzera ere etorri denik, ez da falta.

Gehienak gasteiztarrek bada ere —erdiak—, gainerakoak Euskal Herriko herri desberdinetatik etorritakoak dira: Hernani, Barañain, Donostia... baita herrian bertan bizi den bartzelonar bat ere. Adin guztietako jendea da: hasi hamasei urtetik eta 48 urte arterainokoak. Eta noski, gizezko, nahiz emakumezkoak dira. Guztiek asmo bera dakarte, ordea: euskaraz ikastea eta trebatzea. Eta horretarako, IKA euskaltegiak Leitzan antolatutako ohi dituen, hamabost eguneko barnetegiko ikastaroetako bat aukeratu dute.

Barnetegian, ikasle hauekin

batera hiru irakasle ari dira lanean eskolak ematen. Astegunetan, goizero, 9:00etan hasi eta 14:00ak arte izaten dituzte klaseak eta arratsalde, berriz, tailerrek edo kanpo-ekintzak burutzen dituzte, 16:00etatik 18:30era. Asteburuetan eskolako mahaiei erantsita egon beharrik izaten ez duten arren, irteerak ere antolatuta dituzte. Beraz, ez dute inolaz ere asperetzeko betarik.

Txanda honetan, hiru taldeetan banatuta daude ikasleak, 5. urratsetik hasi eta 10.era bitartean. Azken hauek jada, EGA azterketa prestatzen ari dira eta, gutxienez bitxitzat jo daitezkeen behinik behin bada: asko, ikasketak euskaraz egiten ari diren gazteak dira.

Kontuak kontu, barnetegian eskolek haina garrantzi du euskaraz hitz egiten hartzen den trebeziak eta horixe da

ezaugarri nagusienetakoa: egunak dituen hogeita lau orduak euskaraz bizitzeko aukera izatea. Horretarako, tailerretan mintza-praktika lantzen dute. Esate baterako, eta sanferminak aitzaki hartuz, kartelak egin eta ondoren, jendarean ezaugarriak aurkeztu beharra suertatu zitzairen. Edota kanpo ekintzetan, euskalkiak ere lantzen dituzte, kasu honetan Leitzakoa, izan ere herrian bertakoak diren hainbat txoko, lantoki, eta lagunengana ikustaldiak egiten ari baitira. Eta gainera zenbait kultur ekitaldiz gozatzeko aukera ere badute...

Hamabost egun dira, baina bete-beteak eta trinkoak izaki, euskaraz aditu eta hitz egiteko ohitura sortuz, euskaldun oso izateko pauso aberasgarri bezain beharrezko izan daitezkeenak. Horretan ari dira.

LEITZA ▶ KIROLA

Entzierroko laisterketan bi leitzarrek parte hartu

Sanferminetako zezenek egiten duten bide bera, baina aziendarik gabekoan izan dira

J. ASTIBIA

Fernando eta Iñigo Irazoki Ezkurdia anaiek, San Fermin bezpera-bezperakoan burutu ohi den Entzierroko Laisterketan parte hartu dute, federatuekin lehendabizikoak eta herri laisterketan besteak.

Bien hala biek azkar ibili ziren arren, nabarmentzekoa da Fernando Irazokik egindako ahalegina, izan ere hamargarren lekuan sartu baitzen. Iruñeko zezen-plazako hondarretara, irabazleak baino zortzi segundo motz beranduago bakarrik, zehazki 2 minutu eta 10 segundoko denborarekin. Iñigo Irazokik denbora gehi-

xeago behar izan zuen, beste 19 segundo.

Laisterketa honen ezaugarria zalantzarik gabe azkartasuna da. Kontuan hartu behar da, bi minutu eta segundo eskas horietan, entzierroko ibilbideak dituen 798,48 metroak egin behar dituztela. Laisterkariak dararmaten abiadura sekulakoa da, segundo bakoitzeko 6-6,5 metro ingurukoa banaz beste, eta bide guztian eritimo horri eusten diete gainera: esate baterako, entzierroan bertan eta inolako oztoporik ez dela, Miura baten aurrean, bide osoan, erabat joatea litzake. Aurten, 21. aldian, 450 laisterkari ateraz ziren.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Taxi zerbitzuaren gaiak aurrera jarraitzen du

Izena emateko epea bukatu eta, orain, zerrenda boletinean argitaratu behar da

J. ASTIBIA

Leitzan taxi zerbitzua eman ahal izateko lizentzien banaketarako, Udalak bere garaian hartutako erabakiari jarraiki, horretan jardun nahi zuteneko izena emateko epea bukatu da jada eta hiruk adierazi dute horretarako intenzioa.

Bere garaian Udalak zerbitzu hau arautuko zuen araudia onartu zuen eta Leitzarako, taxi zerbitzuari dagokionez,

hiru lizentzia zegozkiola erabaki, gero, hauen banaketa, lehiaketa bidez esleitzeko.

Lehiaketari hasiera eman zitzaien orain bukatu berri den izena emateko epea irekiz. Orain zerrenda, Nafarroako Buletinean argitaratu eta erreklamazioak ezean, onartzen bada, lehiaketari bete-betean ekinen zaio, izangaiek frogatu behar dituzten behar-koak dituztelarik. Ondorioz hiru taxilari izanen dira herrian.

iragarki laburrak ▶



Amazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)

Tel.: 948 51 05 34

mug.: 649 47 66 15

e-mail:

jmbuldain@eresmas.com

Berrobi. Hiru etxe unifamiliar adosatua salgai. 160 m²-ko etxebizitza, garaiea 50 m²-koa eta lorategia 40 m²-koa, 306.516,1 euro.

Leitza. Hiru logelako pisua salgai, sukaldea, bainugela eta bi balkoi. 126.212,54 euro.

Leitza. Hiru logelako pisua salgai, sukaldea eta bainua berria, egongela, balkoi eta ganbara. 129.217,60 euro.

Leitza. Etxe unifamiliarra adosatua salgai. Lau logela, hiru bainugela, lorategia... 312.526,29 euro.

Leitza. Jatebe ederra, almanzarekin, salgai. Informazio pertsonala.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 9a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abeltzasketa, Aduna, Abuztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Anzueteta, Anzola, Baiarriaren, Berastegi, Eibarran, Hernialde, Ibarra, Iruña, Lantzi, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Orreaga, Tolosa, Villabona, Zuzurtzi

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Euzko
Jaurfariak,
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

18

hotzena

15

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Belauntza. Aquapark-era joateko izen-ematea, Kultur Etxean edo 17:30etik 20:00etara 943 67 00 20 telefonoan (Anjela). Epea astelehena arte.

Berastegi. Odol-ematea. Muñagorri eskolan 18:30ean.

Ibarra. Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketako baxtelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.

Tolosa. Tolosa CFren XXXVI. Paleta Txapelketa. Renovales-Imaz/Pablo-Migeltxo; Otermin-Goitia/Garmendia-Urretabizkaia. 19:00etan hasita, Berazubiko frontoian.

Tolosa. Irazki elkarte kulturantzaren hilabeteroko bilera. Bihar, 17:00etan, Tolosako Ekinbide Etxean.

ERAKUSKETAK

Altzo. *Altzoko erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona* erakusketa haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiago: 943 65 24 13.

Berastegi. Miguel Etxeberriaren argazki erakusketa Urepele biltokian. Bihar eta etzi.

Hernialde. Luis Mari Nuñezen lanak. Ostatuan.

Ibarra. Argazki rallyan herriko haurrek ateratako argazkien erakusketa dago jarrita Kultur Etxean: natura, herriko guneak, paisaiak... Hilaren 16a bitarte.

MUSIKA

Tolosa. Los Veracruz. 22:30ean, Plaza Berrian. Gau Giro-ren baitan.



Incansables txaranga zezen-plazarako kalejiran. J.SAIZAR



Iraunkorrek txaranga peña batean jotzen. J.SAIZAR

Musikari tolosarrak jaietan

IRUÑA ▶ Tolosako Udal Txistulari Banda eta Incansables eta Iraunkorrek txarangak egunero aritzen dira sanferminei musika jartzen



Udal Txistulari Bandako kidean San Fermin eguneko prozesioan. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Ez da oraingo kontua. Txistularien kasuan Erdi Arotik datorren ohitura omen da. Txarangen kasua berriagoa. Tolosaldeko eta Leizaldeko hainbat musikari Iruñeko sanferminei musika jartzen aritzen dira egunero.

Tolosako Udal Txistulari Bandak aspalditik du harremana Iruñekoarekin. Handik hona etortzen dira sanjoanetan jotzera eta hemendik hara joaten dira sanferminetara. Aste osoa pasatzen dute, egunero baitutze egin beharreko saioak: prozesioak, kontzertuak...

Txaranga askoren beharra izaten dute egun hauetan Iruñeko peñek. Eskualdean hainbeste txaranga izanik, ez da harritzekoa batzuk han izatea. Urte dezente daramate Incansables eta Iraunkorrek txarangek joaten, egunero festak alaitzen, lehenak Alegria de Iruña eta bigarrenak Oberena peñarekin. Tolosako Inauterietako musika asko entzuten da.

ZORION AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri: **HITZAren egoitzara**
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

ZINTZILIK LAN BERTIKALAK
MARGO LANAK - IGELTSEROTZA - UR GIDATZEA - GARBIKETAK
APAINGARRI KONPONKETA - USOEN AURKAKO SISTEMAK
Azkué, 11 • 2.A • IBARRA
mug.: 619 877 397 - 677 667 278 **Andamiorik gabeko lanak**

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
MERKEALDIAK
Arostegieta kalean • **TOLOSA**